

Ezusteko itzela

Asier Legarreta (Iargi Amandrea)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2016ko sari leiaketa. Irugarren saria

Euskalerriko kostaldeko erri txiki-txiki batean, bazan Peru deituriko gizon bat. Bere gurasoak erri aretakoak ziran eta ogei urte eukozanean, erriko neska ederenetako batekin ezkondu eta baserri izugarri batera joan ziran bizitzera. Urte gutxi batzuk baino ez ziran pasatu leenengo alaba jaio zanerako eta jarraian etorri ziran urrengo iru seme-alabak be.

Peruren aita arrantzalea zanez gero, umetan oso gogoko eban aita etxean egoten zan denboraldietan berarekin orduak igarotzea itsasertzean eserita, arrantza kainabera eskuetan eukeela, arraina noz arrapatuko zain. Urteko gainerako sasoietan, ama alboan izaten eban arren, izugarri sumatzen eban aitaren falta, bere ikasgelako lagun geienek guraso biak etxean izaten ebezen eta. Denborarekin oituz joan zan arren, oso gustoko eukon arrantza egitea eta sarritan bakarrik joaten zan. Ondartzaren ezker aldean oso lurmutur polita egoan eta arrantza egiteko leku ezin ohea zan. Astean iru-lau bider arraina eramaten eutseen etxekoei jateko

eta seme-alaba guztiak pozez txoratzen jartzen ziran.

Urte batzuk igaro ziranean, txalupa txiki bat eraiki eban eta eguraldi ona egoan arratsaldeetan kostaldetik gertu nabigatzen ibiltzen zan. Batzuetan bere emazte edo seme alabaren baten laguntza izaten eban arren, geienetan bakarrik joaten zan. Itsasoan arrantzan egiteak asko erlaxatzen eban eta aitarengandik urbilago balego moduan sentitzen zan.

Uztaileko arratsalde bero batean, beste zereginik ez eukala eta, Peruk erriko portu txikian txalupa artu eta arrantzatzera abiatu zen. Kostaldetik milla batzuk urrunduta eta arrantza kainabera bota eban. Eguzkiak gogor jotzen eban arren, kostaldeko aize finarekin gustura sentitzen zan. Ain gustura, non iluntzeko bederatzia eldu eta an jarraitzen eban. Gaua urbiltzen sentitu eban, baina ilargia oindiño atara barik egoen. Egun aretan ez eban ia arrainik arrapatu baina bat-batean ura mugitzen asi zan eta arrainak laster arrantza kainabera artuko ebanaren itzaropena eukon. Itsasoa gero eta geiago mugitzen asi zan eta arrain andi zuri bat ikusi ebala iruditu jakon. Askok poztu zan, familiari ilusio andia egingo eutsolako eta egun pare baterako jatekoa izango ebela-

ko. Alako batean, arrain andia, itsasotik kanpora urtetan asi zan. Oso kolore argia eukon eta izugarri andia zan. Arraina zala pentsatu eban, uretatik ateratzen asi zan gauza zuri eta oso argitsua izanda izutu egin zan. Ura oiuka asi zan, negarrez egongo balitz moduan, eta Peruk arrauna eskuetan artu eban defendatzeko besterik ez eukalako. Itxura borobila eukon gauza ura oiuka, amorratuta eta alde guztietarantz mugitzen ebilen eta izugarritzko olatuak sortzen ebazan.

Peru izututa egoan, orrelako mugimenduekin bere txalupa txikia laster

Irauliko zan; baina ez ekien zer egin. Badaezpada, ixil-ixilik gelditu zan, arrauna eskuetan eukala, animalia arek ikusiko ez ebala pentsatuz. Baina alako batean, borobil erraldoi arek burua jiratu eta Peruri amorratuta begiratu eutson. Oso andia zan, kolore zuria eta oso begi andiak eukozan.

Uretako dragoi edo erensuge bat zala pentsatu eban eta bere garrasiek edonor utzi leikien beldurtuta. Zerbait gertatzen jakon baina Peruren errua al zan? Zer gertatzen zan?

Mutila ikustean uretako animalia a pixka bat urrunduta egin zan, bera be beldurrak jota balego moduan. Biak alkarri begira geratu ziran eta gauza zuri arek aurreko guztiak baino oiuko ozenago bat egin ostean, negarrez asi zan.



Ibai txikiak antzera erortzen jakozan malkoak begietatik. Peru zur eta lur egoan, ez ekian zer egin, zer zan a eta zer gertatzen jakon.

Astiro-astiro arrauna uretan sartu eta etxerantz joatea erabaki eban. Baina gaua oso iluna zan eta ez eban ezer ikusten. Daborduko denbora andana pasatu zan ilundu ebanetik eta, ilargia eta izarrak atara barik egozanez, ezin eban aurrerantz joan, ez ekian kostaldea non egoan. Itsu geratu izan balitz moduan sentitzen zan, dana baltz ikusten eban, animalia zuri a izan ezik. Beldurraren beldurrez, alde baterantz arraun egiten asi zan. Bat-batean animalia berba egiten entzun eban. Negarrez jarraitzen eban baina Peruri zeozer esan ebala iruditu jakon. Peruk burua jiratu eta piztiak olan esan eutson: -Lagundu, mesedez. Ez dakit zer egin dodan, ez dakit zer gertatu jatan, baina ez dot emen egon gura.

Animalia zintzoa iruditu jakonez, Peruk laguntza eskaintzea erabaki eban. Berarengana urbildu zan eta ea zer gertatzen jakon galdetu eutson. Besteak, au erantzun eutson:

“Eskerrik asko gizona, benetan, eskerrik asko. Uste neuen ni bezalako pertsonaia andi bat ikusita izutu eta alde egingo zenduela baina zure laguntza bear dot. Oso istorio luzea eta zaila da azaltzeko. Ni ez naz animalia urtarra, ez naz inoiz uretan bizi izan. Uger badakidan arren, au ez da nire etxea eta emendik ataraten lagundu bear nauzu. Ez al zara konturatu oraindik ilargia eta izarrak atara barik dagozela? Iluntasuna nagusi dala? Ba, nire errua da. Nigatik ezin dozu etxera bueltateko bidea

topatu eta nigatik dago zerua orren ilun”. Lasaitu adi, nik lagunduko aut.

Baina zelan esan dagikezu ori, zergatik da zure errua? Ni ilargi andrea naz. Badakit sinestezina dala baina olan da.

Daborduko ordu bi eroan bearko nebazan zeruan, nire etxean, baina ez da olan. Izan be, itsasoa da nire ispilua eta normalean urrunetik begiratzen dodan arren, gaur eguerdian larregi urbildu naz ispilura eta itsasora erori naz. Ilargia negar batean asi zan. Peru guztiz arrituta egoan. Ilargia be begien aurrean? Eta olan esan eutson:

Lasaitu zaitez, zer egin bear dodan esaten badaustazu, nik lagunduko deutsut. Eta galdera bat, orregatik ikusten zaitut ain argitsu eta zuri bakarrik?

Jakiña –erantzun eutson ilargi andreak- Ez jatan inoiz orrelakorik gertatu eta nire amonak idatzitako liburu batean irakurri neban, gure ispilua dan itsasora asko urbiltzea oso arriskutsua zala. Alan dabe, probatu egin gura neban eta begira zer gertatu jatan. Ez dot geiagotan orrelangorik egingo eta nire etxera bueltatu gura dot. Baina arazo bat dago. Nik gizakiekin bakarrik berba egin dagiket eta etxera bueltatzeko arrain guztiak alkartu eta gorantz indar eginaz ni zerura bultzatu bear nabee. Ados bazagoz, arrainak deituko dodaz eta zuk azaldu zer egin bear daben.

Bai, jakina, orixe egingo dot. Gainera orrela gaua pixka bat argitu eta neu be etxera bueltatu aal izango naz. Baina zuk badakizu gizakiok ere ezin dogula arrainekin berba egin, ezta? Bai, badakit. Baina ori

egoera arruntetan bakarrik gertatzen da. Zuk ni ukitzen banauzu, arrainekin berba egiteko gaitasuna lortuko dozu. Peruk orduan ilargi andrea ukitu eban. Ilargiak arrainak deitu ebazan doinu berezi bat abestuz. Bat-batean arrain pilo batek txalupa inguratu eban.

Milioika arrain baino geiago egozan an, eta mota guztietakoak ganera, a izugarria zan. Baina benetan arrigarrina arrainek eldu aala Peru agurtzen ebela... Danek esaten eutsien kaixo edo zer moduz? Arrain guztiak bertan egozala ikustean, Peruk egin bearrekoa azaldu eutsen. Guztiek batera Ilargia zerurantz bultzatu bear eben Peruk irura arte zenbaturakoan. Orrela egin ebanean, guztiek kasu egin eutsen eta arrain danak batera ilargia bultzatzen asi ziran. Ilargiak asieran eukon aurpegi tristea alaitzen asi zan eta gutxikagutxika itsasotik aldendu zan. Bidean joiala Peruri eskerrak eman eutsozan eta ez ebala inoiz aaztuko zin egin eutson.

Azkenean, Ilargia zerura eldu zan eta bere lekuan kokatu zan; arraiñak be sakabanatzen asi ziran eta, argitasuna nagusitu zanez, Peruk etxerako bidea artu eban. Arrituta egoan, gertatutakoa sinesgaitza zan. Etxera eldu eta familiakoak kezkatuta egozan arren, etxeko gizonak gertatutakoa kontatu ebanean sinetsi ezinik geratu ziran. Ilargiaren tokia zeruan dago eta gu zaintzea dauko elburu baina berak ez dau aaztuko Lurrean bizi izan eban esperientzia eta Peruk emondako laguntza. Olandaze, egun aretatik aurrera, edozein itsasotan Ilargiaren erreflexua ikus dagikegu bera noz edo noz gurekin egon zala gogoraraziz.